

Euskal urratsak Saharan



Aurtengo Sahara Marathon lasterketan 80 euskaldun inguru izan dira. Atletismoaren aitzakian, helburu bat: errefuxiatu sahararrak estaltzen dituzten hautsak eta ahanzturak astintzea, eta lau haizetara zabaltzea.

Ander Izagirre

Jon Salvador erandioztarrak Saharako maratoi erdia irabazi zuen 2003 eta 2004an, aurten maratoi osoan eskuratu du garaipeña eta datorren urterako erronka berria dauka: «Gaizka semea ekarriko dut kanpamenduetara. Hamar urte izango ditu eta iruditzen zait berebiziko esperientzia izango dela berarentzat. Ikus dezala nola bizi diren errefuxiatu sahararrak, basamortu erdian, oso baldintza gogorretan; estima ditzala etxean ditugun erraztasun guztiak; jakin dezala munduan bidegabekeria handiak daudela».

Horixe da, hain zuzen, Sahara Marathon lasterketaren asmoa: korrikalarien oinekin basamortuko hautsak harrotzea, saharar errefuxiatuen bizitza pixkanaka estaltzen duten harea eta ahanztura astintzea, munduak onartzen duen lotsarik handienetako bat salatzea.

Duela 34 urte, administratzaile

kolonial espainiarren utzikieraren ondoren, marokoarrek Mendebaldeko Sahara inbaditu eta bertakoek ihes egin zuten basamortura, napalm eta fosforo bonben erasopean; batzuk kamioietan, egunak joan eta egunak etorri sapak itota, oinak odoletan, ahuntzetan zeramatzen zuten txikiak egarriak eta goseak hiltzen. Aljeriako muga zeharkatu eta hango *hameda* edo harritza kiskalian altxa zituzten lehen kanpalekuak emakume sahararrek, gizonak marokoarren aurka borrokatzen zuten bitartean.

1991an Fronte Polisario sahararrek eta armada marokoarrek suta-tena sinatu zuten, sei hilabetean autodeterminazio erreferendum bat egiteko baldintzarekin. Baina negoziazioak *momifikatu* egin dira, sahararrak euren aberririk kanpo mantentzeko marokoarrek eraikitako 2.700 kilometroko harresiak zutik dirau eta behin-behinekoak ziren Tindufeko errefuxiatu-eremuak adobezko hiri

bihurtu dira: 200.000 saharar inguru daude Aljeriak utzitako harritza idor honetan, kanpoko laguntzaren menpe eta etorkizuna ia agortuta. Basamortuko naufrago horien ahotsa zabaltzeko, Sahara Marathona proba sortu zuten duela hamar urte Italia eta Espainiak bi elkarterek, Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoko kirol agentarien laguntzarekin. Asmak: gazte sahararren artean kirola sustatzea, parte-hartzaileen diruarekin garapen-proiektuak bultzatzea eta errefuxiatuen egoera nazioartean salatzea. Euskaldunak urtero-urtero egon dira irteera-lerroan, maratoi osoa, maratoi erdia, 10 kilometroko proba edo bostekoa korrikatzeko. Baina aurten protagonismo berezia izan dute: ia 20 bat atera baziren, aurten 80 inguru izan dira (guztira, 28 herrialdeetako 878 korrikalarik parte hartu dute lau lasterketetan, ia erdiak sahararrak eta aljeriarrek). Eta euskaldunek hamaika arrazo

di- tuzte basamortuan korrika aritzeko.

Astebetetz bidaide

Hamar kilometro egin ditu Gregorio Eizagirre tolosarrak eta sei letra dauzka basamortura behin eta berriz joateko arrazoiak: Mariam. Hala deitzen da bere etxean bost uda igaro zituen neska sahararra, orain Aljerian ikasten ari dena eta ia alabatzen daukatena. Mariamen jaioterria ezagutu zuten sahararrek txunditu zuten gelditu zen Eizagirre, eta ordutik bultzatzea eta errefuxiatuen egoera nazioartean salatzea. Euskaldunak urtero-urtero egon dira irteera-lerroan, maratoi osoa, maratoi erdia, 10 kilometroko proba edo bostekoa korrikatzeko. Baina aurten protagonismo berezia izan dute: ia 20 bat atera baziren, aurten 80 inguru izan dira (guztira, 28 herrialdeetako 878 korrikalarik parte hartu dute lau lasterketetan, ia erdiak sahararrak eta aljeriarrek). Eta euskaldunek hamaika arrazo-

di- tuzte askatueta eskola bat eraikitzeko xedea dute orain. Eremu horretan jende gutxi bizi zen azken urteotan. Fronte Polisarioko soldadua eta artzain nomada gutxi batzuk besterik ez; marokoarren harresitik gertu dagoelako zona hori, minaz josita eta armadaren mehatxupean. Baina pixkanaka Tindufeko zenbait errefuxiatu hara bizitzera joan dira eta azpiegitura zibil bat eraiki nahi dute.

Maratoira ere sarritan etorri dira Tolosaldeko saharazaleak. Eta aurten, hamargarren edizioa zela eta, ehun euskalduneko talde bat osatzeko erronka bota zuten Eizagirre eta bere kideek. Aurkezpen publikoak egin zituzten, kirolzaletan deia zabaltu eta azkenean 80 euskaldun inguruk izena ematea lortu zuten, aurreko urteko kopurua laukoiztuz. «Krisi garaian izateko, ez dago batere gaizki», dio Eizagirre. Parte-hartzaileek orduan baina ez dute esan. Duintasun handiz eta askatasun irrikaz bizi dira. Miresgarria da. Tolosaldea Sahararekin elkarrekin sortu eta azken urteotan modu askotako laguntza helarazi diete errefuxiatuei: elikagaiak, botikak, eskoletarako materiala, egunkari bat egiteko informatika tresnak, zenbait proiektu abian jartzeko dirua... Saharako lurral-

erriko asko, gure 34 urteko bidaia gogor honetan astebetetz bidaide izateagatik», esan zien Salek Baba Kooperazio ministro sahararrak kirolari guztiei.

Errefuxiatuekin bizitzen

«Gehien erakartzen ninduen, familia sahararren etxeetan bizitzea zen», dio Laura Herrero lasartearrak. Errefuxiatuen kanpalekuetako bizimodu astunean, korrikalarien bisita bizigarri bat da bertakoentzat: «Harrigarria egin zait zein abegi onez hartu gaituzten», dio Herrerok. «Oso maitagarriak dira, oso alaiak, betiko lagunak bagina bezala jokatu dute gurekin. Euren etxe xumea betirako gure etxea dela esaten ziguten, eta noizbait 'benetako Saharara', euren aberria, itzultzen direnean, hango etxea ere geurea izango dela». Korrikalariek orduak eta orduak eman dituzte jaima barruetan, zaharrekin hitz aspertuan, haurrekin jolasean, tea edaten, kuskus platerkadak gamelu haragiarekin jaten, kontu-kontari. «Deigarria egin zait familetan zein lotura estua dagoen. Egon garen etxe gizona Fronte Polisario militarra da, hiru edo lau hilabete egiten ditu kanpoan, eta



Mikel Goldarazena: Menditik basamortura

Mendiko marta luzeak egiten ohituta dago 50 urteko irurtzundarra, baina ez zen sekula irten maratoi batean. «Gogorra egin zait beroarengatik, triapak dantzari izan ditudalako eta 20. kilometroan aurrerari nire muga gainditu nabilako, baina bost maratoi egin dituen Jon Diazekin elkartu eta hobeto joan gara biok. Saharar gazte batek aurreratutako oihuka: 'Goazen, goazen, han aurrean neska ilehori bat do! Askok gustatzen zaizkit ilehoriak!' Eta ihes egin digu».

Laura Herrero: Tipi-ttapa

33 urteko lasartearrak 10 kilometro egin ditu bere bizitzako lehenengo lasterketa. «Saharan korrika egiteak kezka pixka bat eragiten zidan: eguzkia, beroa, monotonia... Baina Arantzata tolosarrekin elkartu eta patxadaz joan gara biok, tarteka korrika, tarteka oinez, gozatzen. Edera izan da basamortuan ibiltzea. Eta ikusle sahararren oihuek eta txaloek oilo-ipurdi jarri digute. Eskutik helduta sartu gara helmugan, ni belauneko minarekin eta Arantzata aldakoarekin, baina pozarren».

bitartean emakumeak, Dagoushak, lau urte zaindu eta etxea gobernatzen du. Baina ahizpa laguntzera etortzen zaio eta etxean etengabe sartzen dira lehengusuak, lagunak, auzokoak... Bata haurrekin egoten da, besteak sukaldean laguntzen du, edo elkarrekin eseri eta kontu-kontari hasten dira... Etxea zabalik dago denon onatuz, edozein ordutan, eta beti daukate zerbaitez datorrenari eskaintzeko: tea, arrosa... Guk lo egiten genuen gelan, gauero beste norbait azaltzen zen lotara: ume batzuk, lehengusuren bat... Azkenerako ez genekien nor zen, baina oso giro goxoa zen, familiatekin egiten zuten... Lotura estu hori bizibaldintza gogorren ondorio izan daitekeela uste du Laurak: «Inguru latz honetan iraun ahal izateko, agian hori da gakoa, elkarren oso hurbil egotea, bata bestearen babesa eskaizteko, behar duenari beti la-

guntzia ematea. Eta familetan ikusten dena, kanpamenduen antolatutako ere nabari da: sahararrek elkarrekin handiko jendeari zaien, denok denok ardura dugu». Bata haurrekin egoten da, besteak sukaldean laguntzen du, edo elkarrekin eseri eta kontu-kontari hasten dira... Etxea zabalik dago denon onatuz, edozein ordutan, eta beti daukate zerbaitez datorrenari eskaintzeko: tea, arrosa... Guk lo egiten genuen gelan, gauero beste norbait azaltzen zen lotara: ume batzuk, lehengusuren bat... Azkenerako ez genekien nor zen, baina oso giro goxoa zen, familiatekin egiten zuten... Lotura estu hori bizibaldintza gogorren ondorio izan daitekeela uste du Laurak: «Inguru latz honetan iraun ahal izateko, agian hori da gakoa, elkarren oso hurbil egotea, bata bestearen babesa eskaizteko, behar duenari beti la-

fikutuko, akatsak ere badaudelako noski, baina Estatu txiki baten egitura sortu dute. Eta hori miresgarria da, basamortuaren edierden ezerezetik sortutakoa delako». Bata haurrekin egoten da, besteak sukaldean laguntzen du, edo elkarrekin eseri eta kontu-kontari hasten dira... Etxea zabalik dago denon onatuz, edozein ordutan, eta beti daukate zerbaitez datorrenari eskaintzeko: tea, arrosa... Guk lo egiten genuen gelan, gauero beste norbait azaltzen zen lotara: ume batzuk, lehengusuren bat... Azkenerako ez genekien nor zen, baina oso giro goxoa zen, familiatekin egiten zuten... Lotura estu hori bizibaldintza gogorren ondorio izan daitekeela uste du Laurak: «Inguru latz honetan iraun ahal izateko, agian hori da gakoa, elkarren oso hurbil egotea, bata bestearen babesa eskaizteko, behar duenari beti la-

menuetan: saltoki berriak, jate-txe bat, sauna turkiarra... Aldaketa horiek berbaitez adierazle omen dira: «Aberria itzultzeko itxaropena gaitzen ari direla zenbait, edo oraindik luzerako jotzen dutela balizko itzulera hori. Izan ere, salbuespen edo behin-behineko egoeran inor ez da saiatzeko ezer iraukorrik eraikitzen». Bestalde, agerikoa da kanpamenduetako gazteak etsitzen hasiak direla eta argi azaltzen duten Marokoaren aurka armak berriz harrotzeko prest daudela. Horregatik, sentimendu kontrajarriak dauka Bikilak maratoni honi buruz: «Oso gustura etortzen naiz, baina berriz ospatuko ez balitz, hobea». Gerra berririk jasan gabe eta basamortuko hautsinak liburuan. Eta bertakoekiko senditasunak «harrapatu» egin zuela azaltzen du. Urteen joan-etorrian, aldaketak sumatu ditu Bikilak kanpa-

Jon Salvador: Irabazlea

Aaiun, Auserd eta Smarako errefuxiatu eremuak lotzen dituen 42 kilometroko ibilbidearen marka ezarri du Salvadorrek: 2h42'42. «Ziztu bizian atera gara, lehen 10 kilometroak 34 minutuan egin ditugu, eta bi aljeriarrek eta nigeriar batek ihes egin didate. Gainera, 22. kilometroan jandako zerbaitez kalte egin eta bota egin dut. Baina ez naiz larritu, banekien indarrak gordetzea garrantzitsua zela, biderean bigarren erdian dunak eta gorabeherak zetozelako. Atleta afrikarrek oso onak dira, baina badago kontu bat zaintzen ez dutena: jana eta edana. Urarekin bakarrik ezin da bukaerarik errentimoa mantendu. Nik, normalean, maratoietan ez dut ezer jaten 25. kilometrorate, baina hemen 10. kilometrotik aurrera barra energetikoak hartzen hasi naiz. Eta edari isotonikoak. Bestela, beroak zapuztu egiten zaitu. Eta hori gertatu zaie aurkariei, 30. kilometrotik aurrera pott egin dutela. Nigeriarra leher eginda gelditu da. Aljeriarretako bat, ia zoko irabazlea, 33. kilometroan gainditu du, eta bestea, 35.ean. Hurrengo lau kilometroak oso azkar egin ditut, eta 39.etik aurrera ahal bezala joan naiz, ia arrastaka, baina sei minutuko aldeaz heldu naiz helmugara. Hunkigarria izan da Emakume sahararren uluen eta haurren oihuen artean iristea».